

IZARTU II PROGRAMAREN SEGIMENDUARI BURUZKO TXOSTENA

2008. URTEA



2009ko Uztaila

Aurkibidea

1. AURKEZPENA	1
2. LABURPENA ETA ONDORIOAK	3
3. IZARTU 2004-2008 PROGRAMA EGIN ONDOKO TXOSTENA	5
3.1. ESKU-HARTZEA 2008. URTEAN ETA DESBIDERATZEAK	5
3.1.1. 2008ko esku-hartzearen finantza-exekuzioa	7
3.1.2. Programazioan egin diren aldaketak eta gertatu diren desbideratzeak	10
3.2. IKUSPEGI FUNTZIONALAREN ETA LURRALDE-IKUSPEGIAREN ALDETIK PROGRAMAK	
EGIN DITUEN AURRERAKUNTZEN BALIOESPENA	14
3.2.1. Inbertsioaren aldetik programak izan duen aurrerakuntza	14
3.2.2. Herrien ekarpenak inbertsioari eta jaso diren diru-laguntzak	17
3.2.3. Aurrera egitearen balioespena. Udalen ikuspegi integrala	18
3.2.4. Programaren kudeaketa eta programa zabaltzea	21
4. HIRIA SUSPERTZEKO PROZESUEN AURRERAKUNTZARI BURUZKO TXOSTENA	24
4.1. HELBURUETAN AURRERA EGITEA: INBERTSIOA ETA GAUTZATZEA	24
4.2. HIRIA SUSPERTZEKO PROZESUEN EMAITZAK ETA PROZESUEK JASAN DITUZTEN INPAKTUAK	28
4.2.1. Lurralde-integrazioa	28
4.2.2. Ingurumenaren aldetik degradaturik dauden inguruneak berreskuratzea	31
4.2.3. Irudia eta hiri-baldintzak hobetzea	33
4.2.4. Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea	35
4.2.5. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartzea	37
4.2.6. Zerbitzu eta ekipamendu soziokulturalak eta laguntza-zerbitzuak	39

Grafikoen aurkibidea

3. IZARTU 2004-2008 PROGRAMA EGIN ONDOKO TXOSTENA

1. grafikoa: Aplikazio-eremuak. 2008an Izartu 2004-2008 programek gastatzea programaturik zegoena eta azkenean urte horretan egin duten gastua.	8
2. grafikoa: Eskualdeak. 2008an Izartu 2004-2008 programek gastatzea programaturik zegoena eta azkenean urte horretan egin duten gastua.	9
3. grafikoa: Jarduerak. Izartu 2004-2008 programen desbideratzeak 2008ko programazioaren aldean.	11
4. grafikoa: Udalerriak. Izartu 2004-2008 programen desbideratzeak 2008ko programazioaren aldean.	12
5. grafikoa: Guztizko inbertsiotik 2004-2008 denbora-tartean programek exekutatu duten parteak.	14
6. grafikoa: Aplikazio-eremuak. Inbertsio osotik Izartu II programek 2004-2008 denbora-tartean egin duten gastua	15
7. grafikoa: Eskualdeak. Inbertsio osotik Izartu II programek 2004-2008 denbora-tartean egin duten gastua	16
8. grafikoa: Izartu 2004-2008 programaren martxarekiko gogobetetzea	19
9. grafikoa: Izartu II programak 2004-2008 denbora-tartean laguntza teknikoan egin duen gastua	22
10. grafikoa: 2008. urtean erabili diren komunikazio-, informazio- eta zabaltze-tresnak ..	23

4. HIRIA SUSPERTZEKO PROZESUEN AURRERAKUNTZARI BURUZKO TXOSTENA

11. grafikoa: Kohesio-helburu orokorrak. Inbertsio osotik 2004-2008 denbora-tartean gauzatu den gastua.....	26
12. grafikoa: Izartu II programen ekarria "Lurralde-integrazioa" helburuan.	29
13. grafikoa: Izartu II programen ekarria "Esparruak bere onera ekartzea eta hobetzea" helburuan.	31
14. grafikoa: Izartu II programen ekarria "Ingurumenaren gaineko eragina murriztea" helburuan.	33
15. grafikoa: Izartu II programen ekarria "Enpresaburuei, ETEi eta turismoari laguntzea" helburuan.	35
16. grafikoa: Izartu II programen ekarria "IKTN sartzea" helburuan.	37
17. grafikoa: Izartu II programen ekarria "Diskriminazio positiboa" helburuan.....	39

Taulen aurkibidea

1. Taula: Izartu 2004-2008 programetan aurkeztu diren jardueren analisia, aplikazio-esparruen arabera. 2008. urtea.	6
2. Taula: Izartu 2004-2008 programak, burutze-urtearen (benetakoaren edo aurreikusaren) arabera	10
3. Taula: 2008an programazioan aldaketak egin dituzten udalerriak.....	11
4. Taula: Diruz lagunduriko inbertsioa gauzatzean superabita izan duten udalerriak.	13
5. Taula: Diruz lagun daitekeen inbertsioa gauzatzean atzerapena izan duten udalerriak .	13
6. Taula: Izartu II Programetan 2004-2008 denbora-tartean gauzatu den inbertsioan udalek eman duten laguntza eta finantzazioa.	18
7. Taula: Izartu 2004-2008 programetan burutu diren jardueren analisia, aplikazio-esparruen arabera. 2008. urtea.....	20
8. Taula: Izartu II programen jarduera amaituetatik gehien balioesten diren alderdiak	21
9. Taula: Kohesio-helburu orokorrak. 2004-2008 denbora-tartean gauzatu diren ekintzen aurrerakina	28

1. Sarrera

Izartu 2004-2008 programaren bidez babestu dira hiriak suspertzeko 68 programa integral. Izartu programaren ebaluazioari eta jarraipenari buruzko 2008. urteko txostenak dakar 68 programa integral horien garapenaren laburpena. Horrez gain, labur-labur ekartzen du udalerri onuradunetako lurraldea, gizartea eta ekonomia egituratzean izan diren emaitzarik eta eraginik azpimarragarrienak.

Jarraian aurkeztuko dugun txostenaren bidez bildu eta zehaztu nahi izan da 2004-2008 denbora-tartean ekintzak nola gauzatu diren. Txostenaren bidez, halaber, ikuspegi globala eman nahi da urte hauetan egin den lanaren gain. Azalduko dugu programaren azken txanpan eman diren aurrera-pausoak, emaitzak eta ondorioak. Horretarako, kontuan hartuko dira programen udalerrietako arduradunek 2008ko exekuzio-txostenetan eman dituzten datuak.

Horrela, aurreko txostenetan gertatu bezala, jarraipenari buruzko 2008ko txostenak bi kapitulu nagusi ditu, exekuzioaren laburpena ekartzeaz gainera.

Bi kapituluetan lehena, Izartu II programa egin ondoko txostena da. Lehen kapituluaren teknikoki aztertu da programa aurreikusiak egiaz nola gauzatzen ari diren, esku-hartzearen exekuzioa eta, azken batean, mintzagai dugun ekimenaren bilakaera. Horretarako, erreparatuko diegu, batetik, **funtzioaren arabera sailkapenari** –ardatzei eta neurriei– eta, bestetik, **lurraldearen arabera sailkapenari** –eskualdeei eta udalerriei–.

Kapitulu horretan alderdi hauek aztertuko dira: esku-hartzearen finantza-exekuzioa; programazioaren gain egin diren aldaketak edo gertatu diren desbideratzeak; azken horien zioak eta irtenbideak; ardatz lehenetsien eta udalerrien aurrerakuntza; jaso diren beste diru-laguntzak; laguntza tekniko erabilia eta programaren publikotasuna bermatzeko hartu diren neurriak.

Bigarren kapitulua hiria suspertzeko prozesuen aurrerakuntzari buruzko txostena da. Bertan aztertzen da programen ekarria aldatu nahi duten errealitatean, hau da, programaren kohesio-helburu orokorrak betetzeari buruzko balioespen kualitatiboa da. Aipatu beharra dago, bestetik, bigarren deialdi honetan 68 udal gertatu direla onuradun eta horiek guztiek heldu diotela mintzagai dugun programari.

Bigarren kapituluan barrena, hauek aztertuko dira: programan aurreikusi diren ekintzen aurrerapenak; emaitzak; eta programa aplikatzen den eremuetako lurralde-, gizarte- eta ekonomia-kohesioa sendotzearen gain programak berak izan duen eragina.

2. Laburpena eta ondorioak

2008an Izartu programa bukatutzat eman da 24 udalerri onuradunetan. Aurreko urteetan beste bost udalerri burutu zuten programa. Horrenbestez, esan genezake ekimenaren ekuatorean gaudela, programen %43 burutu baitira. Bestetik, 39 udalerri heldu diote programaren exekuzioa luzatzeko aukerari. Horrela, Zuzendaritzari eskatu diote urte beteko edo bi urteko Izartu programak bukatu ahal izateko.

Aurten bizkortu egin da Izartu programak exekutatzeko erritmoa. Horrenbestez, pentsa genezake 2010ko (azken urteko) ekitaldia amaitzean diruz lagundu diren jarduerak egoki gauzatuak egongo direla. Horrez gain, iragarri dezakegu programak espero zen eragina izango duela epe aurreikusiaren barruan.

Beraz, Izartu 2004-2008 programaren azken txanpan, udalerri onuradunek exekutatu dute ekimen osorako aurreikusi zen guztizko inbertsioaren %85 baino gehiago. 2008an egin den ekarpen ekonomikoari gehitzen badiogu aurreko ekitaldietan egin dena, 146,4 milioi euroko inbertsio metatua dugu eta aurrekontu osoa 172.933.904 eurokoa da. **Horrez gain, Izartu programaren bigarren deialdiaren bidez diruz lagundu diren ekimenen %70 burutu dira jada** (263 ekimen dira guztira, laguntza teknikoak zenbatu gabe). Ekimen gauzatu gehienak, bestetik, antolamenduaren eta birgaitzearen eremukoak dira.

Programak martxa onean doaz. Horren erakusle da, adibidez, gastua 2008an programatutakoari egokitu zaiola, are gehiago, **heren bat baino zertxobait gehiagotan gainditu dira erreferentziazko urteko aurreikuspenak.** Gipuzkoa eta Bizkaia dira lurralde guztietan aurreratuenak, hurrenez hurren, %90eko eta %78ko inbertsio metatua baitute. Aipatu beharra dago, baita ere, *Bilbao, Markina-Ondarroa eta Plentzia-Mungia* eskualdeek beren programak amaitu dituztela.

Programaren puntu honetan, baztertu dira bideragarriak ez ziren ekimenak, eta indarrak jarri dira exekutatu daitezkeen proiektuetan. Bestetik, aipatu beharra dago zenbait programa –Leioa, Sestao, Turtzioz eta Trapagaran– atzeraturik daudela. Kontuan hartzeko egitatea da hori, izan ere, bi urte besterik ez baitira geratzen programa amaitzeko. Udalerri horietako arduradunek, nolanahi ere, uste dute epe aurreikusien barruan gauzatuko direla proiektuak.

Nolanahi ere, **hiriak birgaitzeko prozesuek emaitza onak ekarri dituzte** eta arduradunak nahiz onuradunak pozik daude. **Inbertsioen bolumenari eta artikulatu diren laguntzen bidez eman den babes handiari esker, udalerriek gainditu ahal izan dituzte arazorik handienak.** Horrela, udalerriek aurre egin diete beren baliabideen bidez gainditu ezin izango lituzketen inbertsioei. Zeharkako beste alderdi batzuk ere biziki balioetsi dira, besteak beste: departamentuen eta erakundeen arteko lana; planifikatzeko beharra; programaren orientazio integrala; programa herri-mailan definitzeko eta ezartzeko filosofia.

Lurralde-integrazioari buruzko arazoak gainditzea helburuaren bidez hobetu dira herrien baldintzak eta irisgarritasuna. Oztopo fisikoak ezabatu dira eta hiri-sare kohesionatua ehundu da (48.026 metro koadro errepide, 37 kilometro pasabide, espaloiak, pasealeku berrituak, ekipamendu mekaniko berriak,...). *IKTNk sartzea* izeneko helburua betetzearen eraginez, martxan jarri dira interneten bidezko administrazio-prozesu berriak zenbait udaletan. Bestetik, *Enpresaburuei, ETEei, Turismoari eta udal-ondareari laguntza* eskaintzeko helburuaren bidez, garatu dira 200 ekimen eta jarduera baino gehiago. Haien bidez, laguntza eskaini zaie enpresei eta, horrez gain, hainbat azpiegitura sortu dira garapen ekonomikoa nahiz merkataritza-jardueraren garapena sustatzeko. 750.000 metro koadroko eremua birsortu da. Horietatik 320.000 esparru-publiko liberatuarenak dira. Eremu horretan hainbat ekipamendu jarriko dira. Bestetik, kanalizazioen 80.000 metro zuzen baino gehiago berritu dira zerbitzuetarako eta horniduretarako. Aipatu berri ditugun ekintzak bil daitezke *Esparruak bere onera ekartzeko eta hobetzeko* nahiz *Hiriko jarduerak ingurumenaren gain duten eragina murrizteko* helburuetan. Azkenik, *Bazterketa pairatzeko arriskuan dauden taldeei laguntza* eskaintzea helburuaren bidez, 11.200 metro koadro gaitu dira, erabilera kulturalak eta sozialak izango dituztenak.

3. Izartu 2004-2008 programa egin ondoko txostena

3.1

ESKU-HARTZEA 2008. URTEAN ETA DESBIDERATZEAK

Kapitulu honetan aztertuko dugu Izartu II programen exekuzioa. Neurtuko dugu, baita ere, **programek zer neurritan egin duten aurrera 2008an** esku-hartze eremu bakoitzari eta programaren onuradun gertatu den lurralde bakoitzari esleitu zaizkion helburuak betetzeko.

Bestetik, analisi teknikoa egingo dugu, funtzioaren –ardatzen eta neurrien– **nahiz lurraldearen** –eskualdeen zein udalerrien– **araberakoa. Analisia egitean, bidenabar, aztertuko dugu nola garatu diren Izartuko 63 programetan erreferentziazko ekitaldiaren plangintzan jaso ziren aurreikuspenak** (2004-2007 denbora-tartean amaitu ziren Hondarribiko, Abanto Zierbenako, Andoaingo, Otxandioko eta Zegamako programak, 5 guztira). **Aztertuko dugu, beraz, esku-hartzearen exekuzioa eta ekimenaren eboluzioa.**

Sailkapen funtzionala egitean, talde homogeneotan bildu dira esku-hartze eremu desberdinetarako egin diren Izartu programetako ekintzak. Eremuak, hortaz bi multzotan banatu dira, orokorrak –edo ARDATZAK– batetik eta zehatzak –edo NEURRIAK– bestetik. Horrela, errazago gertatzen da diru-laguntzen aplikazio orokorraren analisia eta jarraipena egitea. Izartu 2004-2008 programen esku-hartze eremua lau zutaberen gainean datza: Ingurune produktiboa, Tokiko oinarritzko azpiegiturak, Gizarte-integrazioa eta, azkenik, Tokiko zerbitzuak eta laguntza teknikoa. Lau zutabe horietan 20 neurri txertatzen dira.

Sailkapen horretan 321 jarduera egituratu dira, 2004an baino 15 gutxiago. Hala gertatu da azken urteotan aldaketak egin direlako hasierako programen gain. Aipatu zuzenketek, nolanahi ere, ez dute aldaketa handirik eragin jardueren banaketan, izan ere, **lehen deialdian gertatu bezala (Izartu 2001-2005 programa), jarduera eta inbertsio gehienak egin dira Tokiko oinarritzko azpiegiturei buruzko 2. ARDATZEAN.** Izartu 2004-2008 programan are jarduera gehiago daude ARDATZ horretan, **inbertsioen %96 eta jardueren %78** hartzen baitu. "Ingurune produktiboa" izena duen 1. ARDATZEAn eta "Gizarte-integrazioa eta tokiko zerbitzuak" izeneko 3. ARDATZEAn, jardueren %4 eta %1 biltzen dira, hurrenez hurren.

1. Taula: Izartu 2004-2008 programetan aurkeztu diren jardueren analisia, aplikazio-eremuen arabera. 2008. urtea.

JARDUERAK ARDATZEN ETA NEURRIEN ARABERA	Nº	%
1. ARDATZA. INGURUNE PRODUKTIBOA	11	%3
1.1. Jarduera babesteko egiturak sortzea eta garatzea	6	%2
1.2. Azpiegitura produktiboa sortzea eta garatzea	1	%0,3
1.3. Enpresaburuei, ETEi eta artisau-enpresei laguntza eskaintzea	1	%0,3
1.4. Herria, turismoa eta ondarea sustatzea	3	%1
2. ARDATZA. TOKIAN TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK	248	%77
2.1. Garraioarentzako azpiegiturak	21	%7
2.2. Telekomunikazioen eta Informazio Gizartearen azpiegitura	3	%1
2.3. Azpiegitura energetikoa	6	%2
2.4. Ingurumenaren azpiegitura	39	%12
2.5. Antolamendu eta birgaitze azpiegiturak	159	%50
2.6. Gizarte- eta osasun-azpiegitura	6	%2
2.7. Aisialdiaren eta kulturaren azpiegitura	12	%4
2.8. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren azpiegitura	2	%1
3. ARDATZA. GIZARTERATZEA ETA TOKIKO ZERBITZUAK	3	%1
3.1. Gizarteratzea	1	%0,3
3.2. Aukera berdintasuna	1	%0,3
3.3. Hezkuntza eta gizabidezko prestakuntza.	-	-
3.4. Herritarren segurtasuna	-	-
3.5. Gizarte-zerbitzuak eta laguntza-zerbitzuak	-	-
3.6. Zerbitzu soziokulturalak	1	%0,3
3.7. Tokiko oinarritzko beste zerbitzu batzuk	1	%0,3
4. ARDATZA. LAGUNTZA TEKNIKOA	58	%18
5.1. Laguntza teknikoa	58	%18

Bestetik, lurraldetan banatu dira programaren onuradun gertatu diren eskualdeak. EAEko 68 udalerri gertatu dira programaren onuradun. Ikus dezagun eskualde horiek zer lurralde historikotan aurkitzen diren: **Araba** – *Arabako lautada*-, **Bizkaia**- *Nerbioi Garaia, Arratia-Nerbioi, Bilbao, Durangaldea, Enkarterria, Gernika-Bermeo, Bilbo Eskuinaldea, Bilbo Ezkerraldea, Markina-Ondarroa, Plentzia-Mungia eta Txorierri-* eta **Gipuzkoa** – *Debagoiena, Bidasoa Behea, Debarrena, Donostia, Donostialdeako ekialdea eta mendebaldea, Goierri, Tolosa eta Urola Kosta-*.

3.1.1. 2008an gauzatu den esku-hartzearen finantza-exekuzioa.


Izartu 2004-2008 programek 40.380.110 euroko gastua exekutatu dute 2008an. Exekutatu da, beraz, 29.970.402 euroko inbertsio programatua eta heren bat baino gehiago. Exekuzioa are handiagoa dela esan genezake. Gainera, kentzen baditugu aurreko ekitaldietan burutu diren 5 programak, udal bakoitzak, batez beste, 640.954 euro gastatu ditu.

Bestetik, batzen baditugu urte hauetan guztietan udalek egin dituzten inbertsio-ekarpenak, gastu metatua 146.435.816 eurokoa litzateke, hau da, inbertsio aurreikusi osoaren %85. Aplikazio-eremu edo udalerri guztietan, erritmoa ez da bera izan.

Esku-hartze eremuei dagokienez, 2. ARDATZA izan da programatutakoari ondoen heldu diona, bereziki, 2.5 neurria *Antolatze eta birgaitze azpiegiturak*. Azken neurri horretan, esaterako biltzen dira programa osoko jardueren %50. Udalerriek 2008ko ekitaldian bete dute 2.5 neurria, eta **programan jaso ziren itxaropenak %120an gainditu dituzte**. Gauza bera gertatu da ondoko lau neurri hauekin: 2.4 *Ingurumenaren azpiegitura*; 2.6 *Gizarte eta osasun-azpiegitura*; 2.7 *Aisialdiaren eta kulturaren azpiegitura*; eta 2.8 *Hezkuntzaren eta trebakuntzaren azpiegitura*. 2.1 *Garraio-azpiegiturak* neurriak, aitzitik, atzerapen handia du erreferentziazko ekitaldi programatuaren aldean.


1. ARDATZEAn eta 3. ARDATZEAn jarduera gutxiago gauzatu dira eta desberdin exekutatu. Ardatz horietan gastu programatuaren %71 eta %122 exekutatu da hurrenez hurren. Neurriei dagokienez, bakarra da atzerapen azpimarragarria duena: 1.1 *Jarduera babesteko egiturak sortzea eta garatzea*.

1. grafikoa: Aplikazio-eremuak. Izartu 2004-2008 programek egin duten gastua 2008rako gastu programatutik.



Lurraldeari erreparatuz gero, zenbait desberdintasun antzemango ditugu. Onuradun gertatu diren eskualdeetatik hamabik programan aurreikusitakoa baino inbertsio handiagoa egin dute: Debagoienak, Nerbioi Garaiak, Arratia-Nerbioik, Bilbok, Mendebaldeak, Ekialdeak, Donostiak, Durangaldeak, Enkarterrik, Bilbo ezkerkraldea, Markina-Ondarroak eta Urola Kostak. Aitzitik, Bilbo ezkerkraldea eta Plentzia-Mungia eskualdeek ez dute gauzatu gastu programatuaren heren bat ere ez. **Lurralde Historikoak** aztertzen baditugu, Araban aurreikuspenen %72 bete dira. Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, programazioaren %120 eta %129 bete da hurrenez hurren.

2. grafikoa: Eskualdeak. Izartu 2004-2008 programek egin duten gastua 2008rako gastu programatutik.



3.1.2. Programazioan egin diren aldaketak eta gertatu diren desbideratzeak.

2008an 24 udalerrik bukatu zuten Izartu 2004-2008 proiektuaren barruko beren programak. Gainera, Izartu II proiektuko 39 programek heldu diote exekuzioa luzatzeko aukerari. 7 udalerrik **urtebetez luzatu dute, beste 32k, aldiz, **bi urtez**.**

2. Taula: Izartu 2004-2008 programak, burutze-urtearen (benetakoaren edo aurreikusien) arabera.

2006an burutu diren programak	Hondarribia.
2007an burutu diren programak	Abanto, Andoain, Otxandio eta Zegama.
2008an burutu diren programak	Areatza, Arrigorriaga, Balmaseda, Bilbao, Elorrio, Errenteria, Etxebarri, Galdakao, Güeñes, Igorre, Legorreta, Lekeitio, Lemoiz, Markina-Xemein, Mungia, Orio, Portugalete, Sopuerta, Tolosa, Ugao, Gasteiz, Zaldibia, Zalla eta Zierbena.
2009ra arteko luzapena duten programak	Antzuola, Astigarraga, Donostia, Erandio, Hernani, Karrantza Harana eta Agurain.
2009ra arteko luzapena duten programak	Amorebieta-Etxano, Arrasate, Artzentales, Ataun, Azpeitia, Basauri, Bergara, Bermeo, Derio, Durango, Elgoibar, Ermua, Eskoriatza, Gernika-Lumo, Ibarra, Irun, Iurreta, Lasarte-Oria, Legazpi, Leioa, Lezo, Mallabia, Mutriku, Oiartzun, Segura, Sestao, Soraluze, Turtzioz T, Trapagaran, Villabona, Zeanuri eta Zumaia.

Luzapenez gain, **2008ko ekitaldian onetsi ziren jatorrizko programa aldatzeko 32 eskaera**. Gehienek eskatzen zuten aurrekontuak aldatzea, zehazki, jardueretan aurreikusten ziren guztizko zenbatekoak aldatzea. Gainerako eskaerak izan dira indarreko programan jarduera berriak sartzeko (bost jarduera berri guztira) edo daudenak kentzeko (9 jarduera kendu dira guztira).


3. Taula: 2008an programazioa aldatu duten udalerriak.

2008an programetan aldaketak egin dituzten udalerriak	Amorebieta-Etxano, Arrasate/Mondragón, Artzentales, Astigarraga, Basauri, Bergara, Bermeo, Elgoibar, Elorrio, Erandio, Ermua, Eskoriatza, Gernika-Lumo, Güeñes, Hernani, Ibarra, Iurreta, Lasarte-Oria, Mallabia, Markina-Xemein, Mutriku, Agurain, Segura, Sestao, Soraluze, Tolosa, Turtzioz, Ugao, Villabona, Gasteiz, Zierbena eta Zumaia.
--	--

Programaziotik desbideratzeari dagokionez, aurtan aurreko urteetan baino neurri apalagoan gertatu da. Logikoa da aurreko urteetan baino finago ibili izana, izan ere, Izartu II programa oso aurreraturik baitago. Udalerrien %35ak amaituko du aipatu programa erreferentzia-ekitaldian. Gainerakoek, luzapena eskatu badute ere, birprogramazio-eskaera egin dute hasiera batean aurreikusten zen exekuzioa egokitzeke.

Horrela, **ez da desbideratzerik egon 2008an martxan egon diren 234 jardueren %71n** (ez ditugu zenbatu aurreko urteetan jarduerak amaitu zituzten udalerriak, ezta laguntza teknikoko jarduerak ere). Hauek izan daitezke desbideratzerik ezaren zioak: erreferentziazko ekitaldian inbertsiorik exekutatzeari programaturik ez izana; aurreko urteetan helburua bete izana; edo 2008. urterako gastu programatua bete izana.


3. grafikoa: Jarduerak. Izartu 2004-2008 programen desbideratzeak 2008ko programazioaren aldean.



Desbideratzea gertatu den kasuen %70ean, programaturikoa baino gehiago gastatu dute udalerriek (zenbait kasutan jardueretan ez zen gasturik aurreikusi eta besteetan, aldiz, hasiera batean aurreikusi zena baino gastu handiagoa gauzatu da bai inbertsiotan baita jardueretan ere). **Desbideratzeen %30ean, aitzitik, programaturikoa baino gastu txikiagoa exekutatu da.**

Izartu II programaren onuradun gertatu diren udalerrien ia erdian (%46) gainditu da gastu aurreikusia. 29 programetan superabita izan da. Beste 17 programek (programen %27k) programan jasotakoa bete dute edo betetzetik oso gertu daude. Azpimarratu beharra dago, bestetik, 8 izan direla gastu programatuaren heren bat ere exekutatu ez duten programak.

4. grafikoa: Udalerriak. Izartu 2004-2008 programen desbideratzeak 2008ko programaziotik.



Aurreko ekitaldietan gertatu bezala, jarduerak garestitu dira eta, ondorioz, udalerriek programatua baino inbertsio handiagoa exekutatu dute. Jarduerak, beren aldetik, garestitu dira hobekuntzak egin direlako edo kostuak hasieran aurreikusitakoa baino handiagoak izan direlako. Beste udalerri batzuetan, aldiz, hasieratik aurreikusi zen jardueran edo programan superabita izango zela. Kasu horietan, jarduerak garrantzi handikoak edo lehentasunezkoak zirenez, udalek are ekarpen handiagoa egin zuten kofinantzaketan.

4. Taula: Diruz lagunduriko inbertsioa gauzatzean superabita izan duten udalerriak.

Superabita izan duten programak	Areatza, Azpeitia, Balmaseda, Bilbao, Donostia, Durango, Elorrio, Erreterria, Etxebarri, Güeñes, Hernani, Igorre, Legorreta, Markina-Xemein, Portugalete, Sopuerta, Ugao, Zaldibia eta Zalla.
--	---

Beste muturrean, zenbait programa atzeratu ditugu. Hau da, zenbait udalerrik diruz lagun daitekeen inbertsioa baino gastu txikiagoa exekutatu dute. Udalerri atzeratuek aitor dute hainbat oztopo aurkitu dituztela. Zenbait kasutan, jarduerak haiekin dakarten hirigintzako kudeaketak oso konplexuak izan dira (beste erakunde eta eragile inplikatu batzuekin hitzarmenak egin eta haien baimena lortu behar izan dutelako). Beste batzuetan, aldiz, izapideak atzeratu egin dira edo beste erakunde batzuek egin behar izan dituzten lanen edo jardueren mende egon dira. Atzerapena alde batera utzirik, proiektuen tokiko arduradun gehienek uste dute programak bideragarriak direla eta heldu diren urteetan aurreikusiriko jarduera eta inbertsio guztiak exekutatu dituztela.


5. Taula: Diruz lagun daitekeen inbertsioa atzerapenez gauzatu duten udalerriak.

Inbertsioaren %50 baino gutxiago exekutatu duten udalerriak	Basauri, Bermeo, Elgoibar eta Oiartzun.
Inbertsioaren %25 baino gutxiago exekutatu duten udalerriak	Leioa, Sestao, Turtzioz eta Trapagaran.

3.2**IKUSPEGI FUNTZIONALAREN ETA LURRALDE-IKUSPEGIAREN
ALDETIK PROGRAMAK IZAN DUEN AUERRERAKUNTZAREN BALIOESPENA****3.2.1. Inbertsioaren aldetik Programak izan duen aurrerakuntza.**

2004 eta 2008 urteen artean exekutatu da epe osorako aurreikusten zen **guztizko inbertsioaren %85**. Aipatu **gastu metatua** Izartu II programak exekutatzearen ondorio da.

5. grafikoa: Guztizko inbertsiotik 2004-2008 denbora-tartean programek exekutatu dutena.




Laguntza teknikoarekin lotura duten jarduerak alde batera utziz eta 2004-2008 denbora-tartean gauzatu diren jarduerari erreparatuz, hauteman dezakegu esku-hartze eremuek antzera egin dutela aurrera. Neurriekin, ordea, ez da gauza bera gertatu.

Izartu II programan **16 neurri** ezarri dira. Horietatik **lau denbora-tarte horretan gauzatu dira**: 1.3 Enpresaburuei, ETEi eta artisau-enpresei babesa; 2.6 Gizarte-eta osasun-azpiegitura; 3.1 Gizarteratzea eta 3.6 Zerbitzu soziokulturalak. 2.7 Aisialdiaren eta kulturaren azpiegitura neurriak besteek baino gehiago egin du aurrera gastuan superabita gertatu delako, izan ere, neurri horretan bildu diren jardueren erdia baino ez baita burutu.

Horrez gain, batez bestekoa baino aurrerapen handiagoa izan dute beste neurri hauek: 1.4 Herria, turismoa eta ondarea sustatzea; 2.1 Garraioaren azpiegiturak; 2.2 Telekomunikazioen eta informazio-gizartearen azpiegitura; eta 2.3 Energiaren azpiegitura. Aitzitik, badira beste neurri batzuk batez bestekoaren azpitik geratu direnak: 1.2 Azpiegitura produktiboa sortzea eta garatzea; Hezkuntzaren eta trebakuntzaren azpiegitura; eta 3.2 Aukera berdintasuna.


6. grafikoa: Esku-hartzearen eremuak. Inbertsio osotik Izartu II programek 2004-2008 denbora tartean metatu duten gastua



Lurraldeei dagokienez, **Gipuzkoa da guztietan aurreratuen, guztizko inbertsioaren %90 exekutatu baitu 2004-2008 denbora-tartean, hau da, 70.118.282 €.** Bizkaiari dagokionez, guztizko inbertsioaren %78 gauzatu da, eta 72.229.304 euroko gastua metatu. Araban, aldiz, inbertsioaren %75 gauzatu da eta 4.088.230 euroko gastua metatu.

Eskualdeei dagokienez, Bilbao, Markina-Ondarroa eta Plentzia-Mungia eskualdeek amaitu dituzte beren programak. *Arratia-Nerbioi, Donostia eta Urola Kosta* eskualdeetan, gastu programatua gainditu bada ere, ez dira programa guztiak burutu. *Bilbo eskuinaldea, Gernika-Bermeo eta Debarrena dira batez besteko aurrerapenaren aldean atzeratuen dauden eskualdeak.*

7. grafikoa: Eskualdeak. Guztizko Izartu II programek 2004-2008 denbora tartean metatu duten gastua



3.2.2. Herrien ekarpenak inbertsioari eta jaso diren diru-laguntzak.

Udal onuradunek **Izartu 2004-2008 programaren parte bat finantzatu** behar dute. Parte horren **%37, batez beste, herriek** hartzen dute beren gain. Alde horretarik, aipatu beharra onuradunek ekarpen bat ala beste egin behar dutela, kofinantzaketa-tasaren arabera. Kofinantzaketa-tasa ezartzeko, hondatze sozio-ekonomikoa kontuan hartzen da eta, horren arabera, laguntzaren ehunekoa ezarri. Laguntza, beraz, diruz lagun daitekeen inbertsioaren %30ekoa, %50ekoa edo %75ekoa izan daiteke. 47 programek jaso dute inbertsioaren %75eko diru-laguntza; 17 udalerrik jaso dute %50eko laguntza; eta 4k %30ekoa.

Horrenbestez, Izartu II programek 2004-2008 denbora-tartean **exekutatu duten 146,4 milioi euroetatik** – Izartuk eman dituen diru-laguntzak barne– **udalerriek 54,2 milioi euro jarri dituzte.**

Bestetik, programak bateragarriak dira beste administrazioek eta erakundeek eman ditzaketen diru-laguntza eta bestelako laguntzekin. Alde horretatik, udalerriek laguntza handia izan dute finantzazioaren beren partea jartzeko. Erakunde eta administrazio aipatuetatik jaso diren laguntzak, nolanahi ere, ezin dira bateratu Eusko Jaurlaritzako programa edo sail zehatz batzuek eman dituzten laguntzekin.

Horrela, Izartu II programaren barruan gauzatzen ari diren jarduerak **2.743.451,54 € jaso dituzte beste laguntza eta diru-laguntza batzuetatik 2008an.** (2004-2008) denbora-tarte osoan, udalerri onuradunek 14.481.995,08 euro jaso dituzte, hau da, guztizko gastu exekutatuaren %10 eta herrien diru-ekarpenen batez bestekoaren %27. Diru-kopuru handia bada ere, Izartu II programaren barruan dauden 263 jardueren %16k, hau da, 42 jarduerak jaso dute beste laguntza mota hori. Udalerriei dagokienez, udalerrien %35ek, hau da, 24 udalek jaso dute programaz kanpoko laguntza hori.

6. Taula: Izartu II Programetan 2004-2008 denbora-tartean egin den inbertsioa. Udalen ekarpena eta diru-laguntzak.


INBERTSIOA	Metatua (2004-2008)
IZARTUREN DIRU-LAGUNTZAK	92.254.564,23 €
BESTE DIRU-LAGUNTZA BATZUK	14.481.995,08 €
UDALEN EKARPENAK	39.699.256,93 €
GUZTIRA	146.435.816,24 €

Motari erreparatuz, 2008ko ekitaldian diru-laguntzak jaso dituzte neurri hauetako jarduerak: *2.5 Antolatze- eta birgaitze-azpiegiturak, 2.7 Aisialdiaren eta kulturaren azpiegiturak; eta 2.4 Ingurumenaren azpiegitura.* Diru-laguntzen jatorriari dagokionez, Foru Aldundietatik datoz gehienak, Ingurumen, Kultura, Gizarte Politika, Mugikortasuna eta Lurraldearen Antolamendua sailetatik, hain zuzen. Aipatuez gain, badira inbertsio pribatuko zenbait erakunde Izartu II programaren jarduerak diruz lagundu dituztenak 2008an.

3.2.3. Aurrera egitearen balioespena. Udalen ikuspegi integrala.

Izartu 2004-2008 programari modu integralean azterturik, herrietako arduradunek oso positiboki balioetsi dute jardueren martxa. Aipatu balioespena bat dator aurreko paragrafoetan ageri diren emaitzekin. 2008an 63 onuradunek zituzten programak indarrean. Horietatik 57k ekimenaren ebaluazio positiboa egin dute, gehienbat, itxaropen aurreikusiak bete direlako eta exekuzio-maila oso handia izan delako. Gainerako 6 programetako arduradunen balioespena ez da positiboa izan, atzerapenak izan baitituzte eta azken urteotan jasan dituzten arazoek galarazi baitiete exekuzioan aurrera egitea (berandutzeak obrak gauzatzean, hirigintzako izapide konplexuak, egungo egoera ekonomikoa, eta abar).

8. grafikoa: Izartu 2004-2008 programaren martxarekiko gogobetetzea



Programen tokiko arduradun taldeak oso pozik daude, programek aurrera egin dutelako herriek espero bezala. **Izartu II Programen %43 amaitu dira** dagoeneko. Horrela aurreko ekitaldietan programak bukatu zituzten bost udalerriek –Abanto Zierbena, Andoain, Hondarribia, Otxandio eta Zegama– 2008ko ekitaldian programak amaituko dituzten beste 24 gehitu behar dizkiegu. Hona hemen: Areatza, Arrigorriaga, Balmaseda, Bilbao, Elorrio, Errenteria, Etxebarri, Galdakao, Güeñes, Igorre, Legorreta, Lekeitio, Lemoiz, Markina-Xemein, Mungia, Orio, Portugalete, Sopuerta, Tolosa, Ugao, Gasteiz, Zaldibia, Zalla eta Zierbena.

Dena den, azpimarratu beharra dago programen martxaren gain iritzi positiboa nagusi dela, gehienbat, eta aurreko urteetan gertatu bezala, jarduera burutuek nabari hobetu dutelako udalerri onuradunetako herritarren bizi-kalitatea eta udalerrien irudia. Hariari tenk, **Izartu II programen barruan dauden 263 jardueretatik** (laguntza teknikoko jarduerak bazter utzita) **182 burutu dira denbora-tarte horretan, hau da, jardueren %69.**

7. Taula: Izartu programetako jarduera gauzatuen analisia, esku-hartze eremuaren arabera. 2008. urtea.

JARDUERAK ARDATZEN ETA NEURRIEN ARABERA	Jarduerak guztira	Jarduera burutuak	%
1. ARDATZA. INGURUNE PRODUKTIBOA	11	7	%64
1.1. Jarduerari laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea	6	4	%67
1.2. Azpiegitura produktiboa sortzea eta garatzea	1	0	%0
1.3. Enpresaburuei, ETEi eta artisau-enpresei laguntza eskaintzea	1	1	%100
1.4. Herria, turismoa eta ondarea sustatzea	3	2	%67
2. ARDATZA. TOKIAN TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK	248	172	%69
2.1. Garraioarentzako azpiegiturak	21	19	%90
2.2. Telekomunikazioen eta Informazio-gizartearen azpiegitura	3	1	%33
2.3. Azpiegitura energetikoa	6	4	%67
2.4. Ingurumenaren azpiegitura	39	26	%67
2.5. Antolamendu- eta birgaitze-azpiegiturak	159	109	%69
2.6. Gizarte- eta osasun-azpiegitura	6	6	%100
2.7. Aisialdiaren eta kulturaren azpiegitura	12	6	%50
2.8. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren azpiegitura	2	1	%50
3. ARDATZA. GIZARTERATZEA ETA TOKIKO ZERBITZUAK	4	3	%75
3.1. Gizarteratzea	1	1	%100
3.2. Aukera berdintasuna	1	0	%0
3.3. Hezkuntza eta gizabidezko prestakuntza	-	-	-
3.4. Herritarren segurtasuna	-	-	-
3.5. Gizarte-zerbitzuak eta laguntza-zerbitzuak	-	-	-
3.6. Zerbitzu soziokulturalak	1	1	%100
3.7. Herriko oinarritzko beste zerbitzu batzuk	1	0	%0

Jarduera bukatuek izan dituzten ondorioetatik, herrietako arduradunek bi azpimarratzen dituzte: emaitzak begien bistakoak izatea eta, bestetik, herritarren gogobetetzea. Arduradunak, pozik daude, baita ere, zeharkako beste alderdi batzuekin: departamentuen arteko eta maila desberdinetako erakundeen arteko elkarlanarekin; planifikatzeko beharrarekin; programaren izaera integralarekin; eta programak herrian zehazteko nahiz ezartzeko filosofiarekin.

8. Taula: Izartu II programen jarduera amaituetatik gehien balioesten diren alderdiak

<i>"Hiria birsortzeko eta biziberritzeko hainbat jarduera gauzatzea ahalbidetu du. Eta esku-hartze horrek eragin nabaria izan du udalerriko herritarren eguneroko bizitzan".</i>
<i>"Planteamendua serioa eta kalitate handikoa izan da. Emaitzak ere halakoak izan dira. Eusko Jaurlaritza aliatu fidagarria izan da. Izartu, aldiz, neurririk positiboenetako bat. Izartuk izan duen arrakastaren erakusle, nazioarteko zenbait sari garrantzitsu jaso izana, Europako Batzordeak eta Eskualdeetako Lantaldeak eman ziguna, esaterako. Saria eman zigun epaimahaiak bereziki balioetsi zuen "hiria birsortzeko erabili genuen eredu bikain eta iraunkorra"."</i>
<i>"Herrian garapenerako politikak ezartzera lagundu digu. Politika horiek udalerrian dauden jarduera-eremuak bildu dituzte, bizi-kalitatea hobetzeko, gizarte-kohesio handiagoa lortzeko eta gizarte osatzen duten banako guztiak integratzeko."</i>
<i>"Auzoen arteko harremanaren abiapuntua izan da. Merkataritza, kultura eta aisialdia ekarri ditu auzoetara, eta herriguneetako herritarren arteko lotura sendotu du".</i>
<i>"Udalaren garapena piztu duen elementua izan da".</i>
<i>"Finantza-laguntza handia da. Edukiagatik eta dimentsioagatik, hiriaren gain eragin handia izango duten proiektuak proposatzeko eta gauzatzeko bizigarria."</i>


3.2.4. Programaren kudeaketa eta programa zabaltzea.

Lehenengo deialdian gertatu bezala, Izartu II programaren onuradun gertatu diren udalerrri gehienek kanpoko laguntza teknikoak dute, aldi baterako edo modu iraunkorrean, herrian gauzatzen ari diren Izartu Programak kudeatzera, jarraitzera eta kontrolatzera laguntzen dietenak.

2008. urtean, **Izartu II programaren onuradunen %85ek**, hau da, 54 udalerririk **kanpoko laguntza teknikoak kontratatu** dute, eta 322.461 euro inbertitu dituzte horretan. 2004-2008 denbora tartean, Izartu 2004-2008 programetan 1.650.426 euro gastatu dira guztira laguntza teknikoan, hau da, guztizko inbertsio gauzatuaren %1,1.

2008an programa asko amaitu dira. Eta, ondorioz, kanpoko ebaluazio-talde asko kontratatu behar izan dira programen azken ebaluazioa egin dezaten. Hala ere, 2008an laguntza teknikoan egin den gastua ez da izan aurreko ekitaldietan egindakoa baino askoz handiagoa.

9. grafikoa: Izartu II programaren alde 2004-2008 denbora-tartean laguntza teknikoan egin den gastua




2008an, laguntza teknikoa behar izan da proiektuak kudeatu, koordinatu eta kontrolatzeko udalerri-mailan, ziurtatzeko programaren bidez lortu nahi diren helburuak eta ezarri diren arauak betetzen direla. Laguntza teknikoa behar izan da, baita ere, finantza-kontrola eta -segimendua gauzatzeari buruz egin behar diren agiriak lantzeko. Laguntza behar izan da, baita ere, azken ebaluazioari buruzko txostenak lantzeko.

Publizitate- eta zabalkuntza-jarduerei dagokienez, 2008an programak indarrean zituzten udalerrien %96k programak ezagutzera emateko jarduerak gauzatu dituzte. Programa jendarteratzeko erabili diren bideetatik, udalerri onuradunen %91k dio kartelak eta panelak jarri dituztela esku-hartze eremuetan, Izartu programaren arauetan ezarri bezala.

Bestetik, herritarrak jakinaren gainean jartzeko, Programaren %46k baliatu ditu udalak informazioa zabaltzeko dituen bideak (udaleko web-orria, herriko aldizkariak, postontzietan informazio-orriak sartzea, proiektuak jendaurrean jartzea, eta abar). Bigarren lekuan publizitate-kanpainak leudeke, eskualdeko aldizkari, egunkari eta ikus-entzunezko hedabideetan (irratian, herriko telebistan, erkidegoko telebistan, eta abar) artikulua argitaratzea. 2008. urtean, bigarren aukera horren alde egin du onuradunen %20k.

10. grafikoa: 2008. urtean erabili diren komunikazio-, informazio- eta zabaltze-tresnak.



4. Hiria suspertzeko prozesuen aurrera pausoei buruzko txostena

4.1

HELBURUETAN AURRERA EGITEA: INBERTSIOA ETA GAUTZATZEAK

Programek errealitatea aldatzea dute xede. Guk, kapitulu honetan aztertuko dugu programek zer egin duten errealitatea aldatzeko. Izartu **2004-2008 programen bidez hainbat jarduera gauzatu dira eta programa horiek emaitza jakin batzuk izan behar zituztela aurreikusi zen. Guk, kapitulu honetan, aztertuko dugu zer neurritan bete diren programen xedeak eta, baita ere, kohesio-helburu orokorren gain izan duten eragina.**

Lehenengo deialdian bezalaxe, Izartu II programaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko hirigune kaltetuak sozialki eta ekonomikoki suspertzea. Horretarako **jarduera integralak eta integratuak gauzatuko dira** (Hiriak biziberritzeko programa integratuak). **Jarduera horien bidez modu bateratuan landuko dira hirigune horietako arazo zehatzak** (sozialak, ekonomikoak, ingurumenekoak, eta abar), **lurralde-kohesioa eta kohesio ekonomikoa nahiz soziala lortzeko.**

Hori guztiagatik, jardueraren tipologiari, xedeari edo sortu nahi diren eraginei erreparatuz, Izartu 2004-2008 programaren bidez diruz lagundu diren jarduerak banatu ditzakegu kohesio-helburu hauetan:

LURRALDE-INTEGRAZIOARI BURUZKO ARAZOAK KONPONTZEA



- Helburu hau dute Izartu II programako 59 jarduerak, hau da, guztizko inbertsioaren %19ak.
- Jarduera horien bidez hauek lortu nahi dira: auzoetako edo hirien kanpoko aldeko eremuetako hiri-baldintzak eta irisgarritasuna hobetzea; oztopo fisikoak gainditzea; eta hirian sare kohesionatua ehuntzea, oinezkoentzako zein ibilgailuentzako bide berrien, eskaileren eta arrapala mekanikoen bidez, irisgarritasunari eta mugikortasunari buruzko planen bidez, eta abar.

EREMU KALTETUAK EDOTA ABANDONATUAK BERE ONERA EKARTzea ETA HOBETzea




- Helburu hau dute Izartu II programako 106 jarduerak, hau da, guztizko inbertsioaren %49ak.
- Jarduera horien xedea da natur-, industria- eta hiri-ingurune nahiz bestelako eremu kaltetuak bere onera ekartzea. Goian aipatutakoa helburu duten jardueren bidez, halaber, esparruak eta ekipamenduak prestatuko dira herritarrek ingurumenaz goza dezaten.

HIRIKO JARDUERAK INGURUMENAREN GAIN DUTEN ERAGINA MURRIZtea



- Helburu hau dute Izartu II programako 61 jarduerak, hau da, guztizko inbertsioaren %20ak.
- Jarduera horien bidez hobekuntzak egingo dira hirigintzan eta udalerriko sareetan eta zerbitzuetan. Hobetuko da, baita ere, hiriaren itxura. Horretarako, alde zaharrak, eraikinak eta etxebizitzak berrituko dira, azpiegiturak jarriko dira hirietan, esparru publikoak, eta abar.

ENPRESABURUAK, ETE-AK, TURISMOA ETA UDAL-ONDAREA BABESTEA



- Helburu hau dute Izartu II programako 20 jarduerak, hau da, guztizko inbertsioaren %6ak.
- Proiektu hauen bidez handitu nahi da enpresa berriak sortzeko eta erakartzeko aukerak. Handitu nahi dira, baita ere, udalerrietan dauden negozioen aukerak. Horrez gain, hiriko ekipamendu gehiago jarri nahi dira gizartea eta hirugarren sektorea garatzeko eta turismoa sustatzeko.

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK SARTzea



- Helburu hau dute Izartu II programako 6 jarduerak, hau da, guztizko inbertsioaren %3k.
- Jarduera hauen bidez zuntz optikoa eta udaleko zenbait ekipamendu sartu nahi dira. Horrez gain, hiriko administrazio zerbitzuak digitalizatu nahi dira, e-administrazioa.


GIZARTE- ETA LAN-BAZTERKETA PAIRATZEKO ARRISKUAN DAUDEN TALDEEI LAGUNTzea



- Helburu hau dute Izartu II programako 11 jarduerak, hau da, guztizko inbertsioaren %3k.
- Gizarte zerbitzuetako eta hirugarren sektoreko ekipamenduen proiektuak, egoitza soziokulturalak, liburutegiak, adinekoentzako esparruak, gazteentzako txokoak edo gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan dauden taldeentzako harrera-lekuak, eta abar.

Hauek dira jarduerarik gehien eta inbertsiorik handiena duten helburuak: *Lurralde-integrazioari buruzko arazoak gainditzea; Esparru kaltetuak edota abandonatuak bere onera ekartzea eta hobetzea; eta hiriko jardueren ingurumenaren gain duten eragina murriztea*. Lerro hauen azpian dagoen grafikoak erakusten duen moduan, helburu hauek ez dira programaren batez besteko aurrerapen-erritmoa jartzen dutenak.

11. grafikoa: Kohesio-helburu orokorrak. Guztizko inbertsiotik 2004-2008 denbora-tartean gauzatu den gastua.



Horrela, ekonomiaren ikuspuntutik, Esparru kaltetuak edota abandonatuak bere onera ekartzea eta hobetzea helburua da aurreratuen, inbertsioaren %91 exekutatu baita. Horrez gain, helburu hori da jarduerarik gehien biltzen dituen, programako guztien %40. Bestetik, *Bazterketa jasateko arriskuan dauden taldeei laguntza eskaintzea* helburua da guztietan gehien aurrera egin duena (%126). Hala izan da xede horrekin gauzatu diren jardueren superabita izan dutelako inbertsioan, ez baitira bukatu.

Ildo horretatik, **gauzatzeen exekuzioari dagokionez** (jarduerak "gauzatze" izeneko esku-hartzetan banatzen dira lortu nahi den helburua betetzeko), **herrietako arduradunek aurrera egin duela hauteman dute**. Gauzatze-adierazleen bidez gauzatzeen aurrerakuntza neurtzen da. Arduradunen ohartarazpenak, beraz, jardueren errealitatearen eta aurrerakuntzaren gaineko ikuspegi zehatzagoa dakarkigu. Taulan azaldu bezala, **udaletan mantsoago exekutatu dira gauzatzeak exekuzio ekonomikoa baino**, guztizko aurreikusaren **%75**.

9. Taula: Kohesio-helburu orokorrak. 2004-2008 denbora-tartean gauzatu diren ekintzen aurrerakuntza.

HELBURU OROKORRAK ETA JARDUERA-MOTAK	Jard. Kop.	Gauzatz. %
LURRALDE-INTEGRAZIOARI BURUZKO ARAZOAK KONPONTZEA	59	%72
Bideak eta sarbideak sortzea edo hobetzea.	43	%70
Sarbide mekaniko berriak (arrapalak, eskailerak, igogailuak).	6	%70
Hirigintzako oztopoak ezabatzea eta oinezkoentzako eremuak garbitzea.	2	%100
Hirigintzako kalitate-mailak egokitzea.	8	%48
ESPARRU KALTETUAK EDOTA ABANDONATUAK BERE ONERA EKARTZEA ETA HOBETZEA	106	%80
Industrialdeak bere onera ekartzea.	9	%81
Hirialdeak bere onera ekartzea.	87	%87
Ingurune naturalak bere onera ekartzea.	10	%73
HIRIKO JARDUERAK INGURUMENAREN GAIN DUTEN ERAGINA MURRIZTEA	61	%67
Sareak eta azpiegiturak hobetzea (saneamendua, hornidura, argiteria,...).	35	%83
Kaleak oinezkoentzako bihurtzea eta plazak urbanizatzea.	3	%61
Alde zaharren itxura hobetzea eta hiriak dotoretzea.	5	%79
Auzoetako hiri-baldintzak hobetzea.	9	%53
Parkeak, aisialdirako areak, bidegorriak, eta abar sortzea.	9	%59
ENPRESABURUAK, ETEAK, TURISMOA ETA UDAL-ONDAREA BABESTEA	20	%66
Enpresa-sorkuntza sustatzeko esparruak eta enpresa-jarduerari laguntzeko zerbitzuak.	3	%73
Areak gaitzea industria-, merkataritza- eta hirugarren sektoreko jarduerak gauzatu ahal izateko.	13	%71
Ondarea eta interes turistikoa duten esparruak berritzea	4	%54
IKT SARTZEA	6	%94
Ekipamenduz eta azpiegiturez hornitzea IKTnak sustatzeko.	3	%100
Informazio-gizartea eta e-administrazioa sustatzea.	3	%88
GIZARTE- ETA LAN-BAZTERKETA PAIRATZEKO ARRISKUAN DAUDEN TALDEEI LAGUNTZEA	11	%88
Ekipamendu sozialak eta kulturalak.	8	%88
Udaleko zerbitzuak eta programak.	3	%89

4.2

HIRIA SUSPERTZEKO PROZESUEN EMAITZAK ETA PROZESUEK JASAN DITUZTEN ERAGINAK


Aurreko paragrafoan aipatu bezala, hauek dira gauzatzeen aldetik aurreratuen dauden helburuak: *Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak sartzea; Gizarte- eta lan-bazterketa jasateko arriskuan dauden taldeei laguntzea; eta Esparru kaltetuak edota abandonatuak bere onera ekartzea eta hobetzea*. Gauzatu egin dira aipatu helburuetan biltzen diren esku-hartzeen %80. Eta ia jarduera guztiak burutu dira.

Azken atal honetan, aztertuko ditugu helburuetan bildutako jardueretatik burutu direnak ekarri dituzten emaitza nagusiak. Aztertuko ditugu, baita ere, helburu horiek bete izanak ekarri dituen ondorioak edo izan dituen eraginak. Jardueraz gain, sakontasunez landuko ditugu 2008an amaitu diren Izartu programak.

Azpimarratu beharra dago zenbait kasutan, nahiz eta jarduerak guztiz exekutatu, eraginak aztertzen baditugu antzemango dugu helburuek ez dutela aurrera egin guk uste bezain beste. Izan ere, azpiegitura eta ekipamendu berrietako askok ez dituzte oraindik sortu espero ziren eragin guztiak. Aipatu emaitzak gauzatuko dira, gehienbat, heldu diren ekitaldietan.

4.2.1. Lurralde-integrazioari buruzko arazoak gainditzea.

5 urtez exekutatu ondoren, **helburu horren azpian biltzen diren jardueren %72 gauzatu dira**, eta helburu hau duten jarduerak gauzatzen ari diren 38 **udalerrietatik 29k bukatu dute**. Sortu eta hobetu dira 48.026 metro koadro errepide (horietatik 14.000 soilik 2008an); berritu dira pasabideen, espaloien eta pasealekuen 37 kilometro; jarri dira irisgarritasuna errazten duten ekipamenduak; 8 arrapala, 10 eskailera mekaniko eta 2 igogailu.

12. grafikoa: Izartu II programen ekarria "lurralde-integrazioa" helburuan.

Jarduera horiek medio, hobekuntza handiak gauzatzen ari dira udalerri onuradunetan lurralde-integrazioko gaitan. Horren ondorioz, bultzada itzela eman zaio **hiriko sare egituratuagoa eta herritar guztientzako eskuragarriagoa** sortzeko helburuari.

Herriko arduradunek azpimarratzen dute Izarturen inbertsio-indarra duten programen laguntzarik gabe ezinezkoa litzatekeela munta horretako obrak egin lurralde-integrazioa hobetzeko. Arduradunek nabarmentzen dute Izartu programaren zenbait jardura exekutatzearen ondorioz hobetu ahal izan direla irisgarritasuna eta komunikazioa. Hauek dira gauzatzaileen iritziz programak exekutatzearen ondoriorik azpimarragarrienak: hiri-inguruetakoa auzoak hirigunearekin lotzea; mugikortasun murritzua duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea; gizarte-interakzioa areagotzea; eta bideetako trafikoa hobetzea.


LURRALDE-INTEGRAZIOARI BURUZKO ARAZOAK GAINDITZEA

- *Antzuola* herriguneko zolatzea berritzea, zehazki, Buztinzuri, Ondarre Plaza eta Kalebarren kaleetan (150 m²).
- *Areatzako* alde zaharreko kaleak oinezkoentzako bihurtzea eta kalean aparkaleku publiko berria egitea (4.000 m²).
- *Artzentalesen* Santa Maria eta La Zarzuela auzoetatik herrigunera doazen udal-bideak konpontzea.
- *Basaurin* arrapala mekanikoak eta igogailuak jartzea Doctor Fleming kalera errazago sartzeko.
- *Bilbo Zaharreko* plazak (Plaza Triangeluarra, Bilborock eta Mirasol Kondearen kalea) berritzea eta berurbanizatzea (3.000 m²).
- *Goieta* kalea eta *Elorrioko* alde zaharra lotzeko bide berria egitea eta San Agustin eta Araunas auzoetara sartzeko nahiz Santruan baselizara heltzeko bideak eta zirkulazioa hobetzea.
- Oinezkoek *Etxabarriko* Lezama-Legizamon auzoetara sartzeko pasabide berria egitea.
- *Eskailera* mekaniko berriak jartzea *Galdakaoko* Aperribai, Olabarrieta eta Txistulanda auzoetara errazago sartzeko.
- *Güeñes* herrigunera sartzeko biribilgune berria (2.132 m²) egitea eta Herriko Enparantzako zerbitzu-sareak berritzea.
- *Irungo* Artiga pasealekua berurbanizatea.
- *Iurretako* Zubiaurre kalea oinezkoentzako bihurtzea.
- *Lasarte-Orian* ibaiaren ertzetik doan pasealekua, Uistin eremua eta kirolgunea berritzea, 2.028 m².
- *Mutriku* herrigunera sartzeko erraztasuna hobetzea (Piñastegin eskailera mekanikoak jartzea eta Sulenguan igogailua).
- *Sopuertan* oinezkoentzako eta ibilgailuentzako bide berriak (Baluga, San Cristobal, Castaños, Mercadillo eta Carral auzoak). 22.200 m² esparru integratu.
- 3.000 m²ko azalera birgaitzea eta urbanizatzea *Ugaon* (Usila, Iturrigorrialde eta Santi Laurentzi) eta trenbidearen azpitik doan tunela berriz egokitzea.
- *Gasteizen* Abetxuko auzoan Zadorra ibaiaren gainetik doan zubia berritzea (oinezkoentzako, txirrindularientzako, eta ibilgailuentzako).

4.2.2. Esparru kaltetuak edota abandonatuak bere onera ekartzea eta hobetzea.

Helburu honen azpian biltzen diren 106 jarduerak %80 egin dute aurrera. Jarduera horien bidez bere onera ekarri dira 750.142 m². Horietatik industria-, hiri-, eta natura-inguruneako 140.000 m² 2008. urtean berritu dira. Beste 320.000 m² esparru publiko liberatukoak dira, gerora hiriko ekipamenduez hornituko dena.

13. grafikoa: Izartu II programen ekarria "Esparruak bere onera ekartzea eta hobetzea" helburuan.



Jarduera hauek erabakigarriak dira zenbait industrialde, ingurune natural eta hiri-ingurune kaltetu beren onera ekartzeko. **Jarduera horien bidez, lurra berreskuratu egin da erabilera berrietarako, hau da, bizitokiak, industrialdeak edo aisialdirako eremuak egiteko, herritar guztiek goza ditzaten.** Izartu II programari esker, hiriguneak eta hirien kanpoaldeak berritu dira, eta bizi-kalitatea egokitu hiri-estandar berrietara egokitu.

ESPARRU KALTETUAK EDOTA ABANDONATUAK BERE ONERA EKARTZEA ETA HOBETZEA

- *Amorebietan, Sabino Arana kaleko espaloiak, saneamendua, zolatzea, argiteria, margoa eta altzariak berritzea, eta kaleko aparkalekuak urbanizatzea, 450 m².*
- *Antzuolako Sagasti parkean hobekuntzak egitea, 4.400 metro koadroko azalera egokitzea udalerriko herritarrek erabili eta goza dezaten.*
- *Areatzako zenbait eremu bere onera ekartzea (Arratia Errukiñe, Bekokalea, kantoiak eta lorategia): sareak, kanalizazioak, urbanizazioa,...*
- *Balmasedako Enkarterriak etorbideko hiri-antolatzea, 22.000 m².*
- *Bilbo Zaharreko horniketa- eta saneamendu-sareak berritzea.*
- *Donostian Urumeako hiri-areto berria eta oinezkoentzako zubia egokitzea*
- *Elorrión Esteibarlanda kalea urbanizatzea eta San Vicente bide berria egitea.*
- *Errenteriako Olibet/Etxe Berriak auzoko azpiegiturak berritzea eta Alameda eraikina eraistea, oinezkoentzako 3.500 metro koadroko esparrua liberatuz.*
- *Etxebarrin Nerbioi ibaiaren ertza bere onera ekartzea eta ibai ertzean parke berria egitea.*
- *Galdakaon azpiegiturak berritzea, 1.050 m² kale eta plaza.*
- *Güñesén gauzatu diren jardueren bidez, Zeribai, Zubiko, Sollobente, Allende-Zelaia eta Sobarkotxa auzo andeatu horiak berreskuratu dira.*
- *Legorretako Berostegi auzoan 5.000 metro koadroko hiri-azalera berritzea.*
- *Lekeitioko alde zaharra urbanizatzea eta sareak berritzea, 2.000 m².*
- *Lemoizko Armintza auzoa urbanizatzea, 8.167 m²ko azalera berritua.*
- *Lezoko Markesane parkea eta Euskal Herria plaza berritzea, eta aparkalekua nahiz Pildain gizarte-zentroa eraikitzea, 3.000 m².*
- *Markina-Xemeingo alde zaharra merkataritza berreskuratzea eta oinezkoentzako egokitzea.*
- *Orioko Iturbide, Pelotari, Balea eta Abeslari kaleak berurbanizatzea.*
- *Portugaleteko Ramón y Cajal kalea berurbanizatzea, 3.400 m².*
- *Sopuertako Carral, Mercadillo eta San Pedro plazak berurbanizatzea.*
- *Tolosako alde zaharrean zenbait esparru liberatzea eta hainbat patio irekitzea.*
- *Ugaoko Leitoko hiri-parkea bere onera ekartzea, 31.300 m².*
- *Gasteizko Zadorra ibaiaren inguruak egokitzea, 185.000 m².*
- *Zaldibiako hiri-antolamendua (Hilerria eta Santa Fe inguruak).*
- *Zeanuriko San Isidro kalean aisialdirako eremuak eta plazen azalera berreskuratzea, 2.100 m².*
- *Zierbenako Kardeo auzoan 5.000m²ko azalera berurbanizatzea.*

4.2.3. Hiriko jarduerak ingurumenaren gain duten eragina murriztea.

Bete dira helburu horren azpian biltzen diren 61 jardueren emaitzen %67.

Besteak beste, hauek gauzatu dira: horniketen eta saneamenduen 88.430 metroko lerroak berritu dira; hainbat bide oinezkoentzako bihurtu dira eta hainbat plaza sortu, 23.767 m²ko azalera guztira; eta parkeak eta berdeguneak gaitu dira, 9.000 metro koadrotik gorako azalera guztira.

14. grafikoa: Izartu II programen ekarria "Ingurumenaren gaineko eragina murriztea" helburuan.



Izartu II programak **hobetzen ari dira udalerri onuradunetako ingurumen-kalitate urbanistikoa**: ibilgailuen trafikoa gutxitzea, kutsadura eta ezbeharren kopurua murrizteko; zerbitzueta azpiegiturak eta sareak berritzearen ondorioz eraginkortasun energetikoa handitzea, gehiago aurrezteko eta isuri kutsakorrak murrizteko; eta hiriko ingurumena hobetzea esparru publikoak eta aisialdirako eremuak nahiz berdeguneak beren onera ekartzearen eraginez.


HIRIKO JARDUERAK INGURUMENAREN GAIN DUTEN ERAGINA MURRIZTEA

- *Areatzan, Aita Sakramentinoen auzoko horniketa- eta saneamendu-sareak egitea eta daudenak hobetzea, 1.500 m.*
- *Arrigorriagan, Atxukarro Eun, saneamendurako eta horniketarako udal-sareak hobetzea eta berritzea, 4.000 m.*
- *Bergarako Artekale eta Harruiaga kaleak birgaitzea, saneamendu-, telefono-, ur-, elektrizitate- eta gas-sareak jarritz, 3.120 m.*
- *Derioko Gernikako arbola kalea berurbanizatzea, Mingialde etorbideko elkargunetik.*
- *Elgoibar udalerrian eremu publikoak eta etxaurreak berurbanizatzea, berritzea eta dotoretzea.*
- *Hernanin bidegorri-sarea egitea, 3.500 m.*
- *Igorreko Elexalde kalean ura eramateko tutu-sarea berritzea, 1.500 m.*
- *Mungiako Mungiberri eta Landetxo auzoetan zerbitzu-sareak, bideak, espaloiak, zuhaiztiak eta ekipamenduak (zakarrontziak eta argiteria) berritzea.*
- *Segura udalerrian, gas horniketarako sarea nahiz telefonoen sarea jartzea eta elektrizitate-nahiz saneamendu-sareak berritzea, 7.000 m.*
- *Tolosan lurrazpiko aparkalekua egitea, 2.400 m².*
- *Ugaon, Leitoki hegalean, pasealekua eta aisialdirako eremua duen hiri-zirkuitua egitea, 950 m.*
- *Zierbenan, Aldapa, San Roke eta Kardeo auzoetako saneamendu-sarea egokitzea eta ur-horniketarako sarea berritzea. Zierbenako hirigunetik gertuen dauden aisialdirako eremuetatik gertuen dauden portuetako zuhaiztiak babestea.*

4.2.4. Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea.

Bete dira enpresa-jarduera sustatzea xede duten 20 jardueren bidez gauzatu nahi diren ekintzen 566. Horrela, 110.110 metro koadroko azalera eta hainbat esparru lortu dira enpresa-jarduerarako. Enpresaburuek beharrezko egiturak dituzte eta, egundaino, 200 ekimenetik gora gauzatu dira enpresei zuzenean laguntzeko.

15. grafikoa: Izartu II programen ekarria "Enpresaburuei, ETEi eta turismoari laguntza eskaintzea" helburuan.



Izartu nabarmen bultzatzen ari da **herrietako garapen ekonomikoa**. Enpresaburuak eta enpresa-sortzaileak gaitze aldera, martxan jarri dira enpresei aholkuak eman eta laguntza eskaintzeko programa eta trebakuntza-programa. Horrez gain, merkataritza eta enpresa txikiak sustatzen ari dira. ETEk balio erantsia duten zerbitzuak eskaini behar dituzte. Hori dela eta, erakundeek laguntzak berealdiko garrantzia du. Azpinarratu da, bestetik, programak duen garrantzia turismoa erakartzen duten alderdiak sustatzeko. Are gehiago, programak zuzenean laguntzen du turismoa suspertzera eta sustatzera.


ENPRESABURUAK, ETE-AK, TURISMOA ETA UDAL-ONDAREA BABESTEA

- *Areatzan, Aita Sakramentinoen auzoko horniketa- eta saneamendu-sareak egitea eta daudenak hobetzea, 1.500 m.*
- *Arrigorriagan, Atxukarro EUn, saneamendurako eta horniketarako udal-sareak hobetzea eta berritzea, 4.000 m.*
- *Bergarako Artekale eta Harruiaga kaleak birgaitzea, saneamendu-, telefono-, ur-, elektrizitate- eta gas-sareak jarritz, 3.120 m.*
- *Derioko Gernikako arbola kalea berurbanizatzea, Mingialde etorbideko elkargunetik.*
- *Elgoibar udalerrian eremu publikoak eta etxaurreak berurbanizatzea, berritzea eta dotoretzea.*
- *Hernanin bidegorri-sarea egitea, 3.500 m.*
- *Igorreko Elexalde kalean ura eramateko tutu-sarea berritzea, 1.500 m.*
- *Mungiako Mungiberri eta Landetxo auzoetan zerbitzu-sareak, bideak, espaloiak, zuhaiztiak eta ekipamenduak (zakarrontziak eta argiteria) berritzea.*
- *Segura udalerrian, gas horniketarako sarea nahiz telefonoen sarea jartzea eta elektrizitate-nahiz saneamendu-sareak berritzea, 7.000 m.*
- *Tolosan lurrazpiko aparkalekua egitea, 2.400 m².*
- *Ugaon, Leitoki hegalean, pasealekua eta aisialdirako eremua duen hiri-zirkuitua egitea, 950 m.*
- *Zierbenan, Aldapa, San Roke eta Kardeo auzoetako saneamendu-sarea egokitzea eta ur-horniketarako sarea berritzea. Zierbenako hirigunetik gertuen dauden aisialdirako eremuetatik gertuen dauden portuetako zuhaiztiak babestea.*

4.2.5. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartzea.

Bete dira helburu honetan biltzen diren jardueren bidez lortu nahi ziren emaitzen %75. Hainbat esparru sortu dira IKTak sustatzeko eta informatika nahiz teknologia berriei buruzko programak garatzeko. Horrez gain 1,5 kilometro zuntz optiko jarri dira eta administrazio digitalari buruzko 2 ekimen garatu dira.

16. grafikoa: Izartu programen ekarria "IKTN sartzen" helburuan.



Teknologia berrietara gerturatzeko programak harrera bikaina izaten ari dira, hala erakusten du, bederen, herritarren parte-hartzeak. Herrietako arduradunek nabarmendu dute herritarrek kontzeptu berriak barneratzen ari direla eta erabiltzaileak interakzioan ari direla. Bestetik, hainbat udalek bitarteko informatikoez baliatu dira administrazioko zenbait izapide kudeatzeko orduan. Horren eraginez, udalerrietako herritarrek askoz erosoago eta azkarrago egin ahal izan dituzte administrazioko izapideak.


INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK SARTzea

- ***Azpeitiko** udala Informazioaren gizartean eta, administrazioa digitalizatzearen bidez, IKTN sartzea (datu baseak, artxiboak, GIS, zerbitzuak erabiltzea eta izapideak bideratzea udaleko web-orriaren bidez, eta abar).*
- ***Mutrikuko** udalean interneten bidezko prozesu administratiboak martxan jartzea eta euskarri hori erabiltzen duten herritarren kopurua handitzea.*
- ***Elorrioko** liburutegia eta kultura-etxea egokitzea eta IKTNen erabilera sustatzeko ekipamendu informatiko berriak jartzea. Kultura-zerbitzu berriak udalerrian eta martxan jarri diren programetako parte-hartzea handitzea.*
- ***Areatzako** udalerrian intranet, kudeaketa administratiborako web-orria eta internet bidezko kontsultabideak garatzea. Lortu da herritarrek udalari buruzko informazioa udaleko web-orrian begiratzea (900 kontsulta urtean) eta interneten bidez eskaintzen zaizkien zerbitzuak erabiltzea.*
- ***Igorreko** kultura-etxe berrituan ekipamendu informatiko berriak jartzea.*

4.2.6. Gizarte- eta lan-bazterketa jasateko arriskuan dauden taldeei laguntzea.

Azkenik, bete dira helburu horretan biltzen diren jardueren bidez lortu nahi diren emaitzen %88. Helburu horren azpian 11 jarduera biltzen dira eta, horietako gehienak, burutu dira: 11.200 metro koadroko azalera gizarte-programetarako erabili da; 14.000 erabiltzaile berri erregistratu dira; 30 lanpostu berri sortu dira; eta 400 gizarte- nahiz kultura-jarduera baino gehiago martxan jarri dira.

17. grafikoa: Izartu programen ekarria "Diskriminazio positiboaren" alde.



Izartu **pertsonen eta komunitateen garapenaren alde ari da, aukera berdintasuna abiaburu** harturik. Horrela, herriar guztien aukerak handitzen ari da, batez ere, talde kaltetuenenak. Gainera, hirugarren sektorea sustatzen ari da aldi berean.

Kultura-zerbitzuen eskaintzak gora egin du nabarmen eta, elkarreentzako nahiz taldeentzako elkargune berriak sortu direnez, jarduera soziokulturalak bultzatu dira. Horrez gain, bazterketarik jasateko arriskuan dauden taldeei laguntza handia eskaini zaie. Gizarteratzeko haien aukerak hobetu dira trebakuntza-jardueren bidez, lanaren bidez, eta haurren nahiz gazteen aisialdirako beste aukera batzuk eskainiz.

GIZARTE- ETA LAN-BAZTERKETA JASATEKO ARRISKUAN DAUDEN TALDEEI LAGUNTzea

- ***Derion** Larrabarri baserria eraikitzea, gizarteratzearen aldeko jarduera soziokulturalak garatzen dituzten elkarteek eta taldeek erabili dezaten.*
- ***Elgoibarren**, gazteentzako arretari buruzko programa soziokulturala. 400 erabiltzaile inguru.*
- ***Donostian** Etxarri-Ene gizarte-etxea sortzea, gazte-taldeek bultzatu dituzten gizarte-proiektuen nahiz aisialdirako proiektuen garapena suspertuz.*
- ***Mutrikun**, emakumeen berditasunaren aldeko plana.*
- *Mintzagai dugun helburuak berealdiko garrantzia izan du **Ugaoko** programan. Zenbait jarduera gauzatu dira talde kaltetuenak lan munduan eta gizartean sartzeko, eta herritarren arteko bizikidetza hobetzeko: gizarte-lokalak eraikitzea; liburutegia lekuz aldatzea; Zaharren Etxea handitzea; eta sartzeko erraztasunari buruzko programa.*
- ***Zierbenako** hondartzan minusbaliatu fisikoentzako sarbidea egitea, bertako zerbitzuak eta eraikinak erabil ditzaten eta udan hondartzara joan daitezen beren kasa.*

1. ERANSKINA

IZARTU programentako

finantzei

2004-2008 ALDIKO IZARTU PROGRAMAK	GUZTIZKO INBERTSIOA	% DIRU- LAG.	DIRULAGUNTZA	BIZTANLE ONURADUNAK	INBERTSIOA BIZTANLEEN ARABERA	GASTUAREN PLANGINTZA ETA BETEARAZPENA																	
						2004. URTEA			2005. URTEA			2006. URTEA			2007. URTEA			2008. URTEA			2004-2007 GASTUAREN % GUZTIZKO INBERTSIOAREN	2009. URTEA	2010. URTEA
						PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2004EKO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2005EKO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2006EKO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2007EKO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2008EKO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ			
GUZTIRA	172.933.904 €	%62	109.000.000 €	439.471	394 €	1.333.335 €	8.069.433 €	%805	28.145.648 €	28.093.858 €	%100	56.642.343 €	34.885.036 €	%62	55.537.567 €	34.849.291,41 €	%63	29.970.402 €	40.380.110 €	%135	%85	22.430.376 €	13.291.743 €
ALAVA	5.438.098 €	%50	2.719.050 €	5.751	946 €	33.260 €	46.713 €	%140	866.182 €	876.113 €	%101	1.233.391 €	2.632.697 €	%213	2.136.485 €	109.224 €	%5	586.490 €	423.483 €	%72	%75	1.673.575 €	- €
Arabako Lautada	5.438.098 €	%50	2.719.050 €	5.751	946 €	33.260 €	46.713 €	%140	866.182 €	876.113 €	%101	1.233.391 €	2.632.697 €	%213	2.136.485 €	109.224 €	%5	586.490 €	423.483 €	%72	%75	1.673.575 €	- €
SALVATIERRA/AGURAIN	2.697.133 €	%50	1.348.567 €	4.006	673 €	16.496 €	46.713 €	%283	429.405 €	496.783 €	%116	352.357 €	362.743 €	%103	1.216.805 €	85.870 €	%7	31.452 €	409.853 €	%1303	%52	1.673.575 €	- €
VITORIA-GASTEIZ	2.740.965 €	%50	1.370.483 €	1.745	1.571	16.764 €	- €	-	436.777 €	379.330 €	%87	881.034 €	2.269.954 €	%258	919.680 €	23.353 €	%3	555.038 €	13.630 €	%2	%98	- €	- €
GIPUZKOA	79.566.533 €	%63	45.910.511 €	178.969	445 €	561.598 €	2.870.360 €	%511	13.282.914 €	11.588.953 €	%87	26.852.634 €	14.665.349 €	%55	26.859.279 €	19.106.073 €	%71	16.296.391 €	21.888.368 €	%134	%88	9.379.600 €	5.472.718 €
Debagolena	16.064.253 €	%35	5.432.614 €	21.465	748 €	66.544 €	536.612 €	%807	2.843.369 €	2.073.518 €	%73	5.200.025 €	4.162.123 €	%80	4.602.568 €	2.400.675 €	%52	3.682.051 €	3.989.117 €	%108	%82	2.091.909 €	1.257.527 €
ANTZUOLA	3.899.956 €	%30	1.169.987 €	1.899	2.054 €	14.312 €	28.285 €	%198	880.173 €	323.848 €	%37	1.727.061 €	1.110.688 €	%64	997.479 €	1.137.641 €	%114	1.194.277 €	1.159.597 €	%97	%96	245.378 €	- €
ARRASATE/MONDRAGON	3.066.685 €	%50	1.533.343 €	2.800	1.095 €	18.756 €	68.406 €	%365	491.563 €	101.593 €	%21	988.610 €	1.697.814 €	%172	1.027.258 €	129.749 €	%13	269.123 €	892.579 €	%332	%94	650.000 €	150.000 €
BERGARA	4.852.280 €	%30	1.455.684 €	14.965	324 €	17.807 €	388.777 €	%2183	787.603 €	1.117.758 €	%142	843.819 €	793.115 €	%94	1.626.600 €	87.967 €	%5	2.137.343 €	1.911.573 €	%89	%89	256.314 €	71.007 €
ESKORIATZA	4.245.332 €	%30	1.273.600 €	1.801	2.357 €	15.579 €	51.144 €	%328	684.030 €	530.319 €	%78	1.640.535 €	560.506 €	%34	951.231 €	1.045.318 €	%110	81.308 €	25.368 €	%31	%52	940.217 €	1.036.520 €
Bidasoa Behea	4.560.420 €	%75	3.420.315 €	35.322	129 €	41.839 €	16.468 €	%39	1.181.580 €	562.155 €	%48	1.934.677 €	1.276.668 €	%66	2.006.506 €	2.006.506 €	%100	49.736 €	33.035 €	%66	%85	- €	631.471 €
HONDARRIBIA	1.795.041 €	%75	1.346.281 €	1.301	1.380 €	16.468 €	16.468 €	%100	741.072 €	536.163 €	%72	1.037.501 €	1.224.994 €	%118	- €	- €	%0	- €	- €	%0	%99	- €	- €
IRUN	2.765.379 €	%75	2.074.034 €	4.206	657 €	25.371 €	- €	%0	440.508 €	25.992 €	%6	897.176 €	51.674 €	%6	2.006.506 €	2.006.506 €	%100	49.736 €	33.035 €	%66	%77	- €	631.471 €
Debabarrena	9.362.146 €	%58	5.304.113 €	19.375	483 €	64.881 €	101.843 €	%157	1.502.412 €	896.301 €	%60	2.479.743 €	552.944 €	%22	2.895.360 €	1.851.547 €	%64	2.346.998 €	1.810.215 €	%77	%56	2.536.600 €	1.073.915 €
ELGOIBAR	3.637.165 €	%50	1.818.583 €	10.440	348 €	22.245 €	44.395 €	%200	587.516 €	323.860 €	%55	1.177.026 €	47.999 €	%4	190.072 €	365.753 €	%192	1.009.352 €	830.839 €	%82	%44	1.622.057 €	223.749 €
MUTRIKU	3.232.822 €	%50	1.616.411 €	4.775	677 €	19.772 €	55.280 €	%280	519.506 €	442.754 €	%85	495.778 €	137.525 €	%28	1.872.586 €	1.195.246 €	%64	449.628 €	447.531 €	%100	%70	509.384 €	443.006 €
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	2.492.159 €	%65	1.869.119 €	4.160	599 €	22.864 €	2.168 €	%9	395.390 €	129.686 €	%33	806.939 €	367.419 €	%46	832.703 €	290.548 €	%35	888.017 €	531.845 €	%60	%53	407.159 €	407.161 €
Donostialdea / Donostia San Sebastian	2.473.773 €	%75	1.855.330 €	2.115	1.170 €	22.695 €	- €	%0	392.353 €	343.960 €	%88	800.867 €	481.428 €	%60	826.631 €	832.796 €	%101	817.788 €	955.187 €	%117	%106	76.251 €	- €
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN	2.473.773 €	%75	1.855.330 €	2.115	1.170 €	22.695 €	- €	%0	392.353 €	343.960 €	%88	800.867 €	481.428 €	%60	826.631 €	832.796 €	%101	817.788 €	955.187 €	%117	%106	76.251 €	- €
Mendebaldeko ingurabidea	10.307.646 €	%63	6.224.845 €	52.390	197 €	76.146 €	1.076.510 €	%1414	1.639.801 €	3.813.724 €	%233	2.894.737 €	1.278.985 €	%44	3.105.264 €	1.008.268 €	%32	2.135.982 €	3.206.953 €	%150	%101	394.439 €	478.355 €
ANDOAIN	2.156.467 €	%75	1.617.350 €	13.814	156 €	19.784 €	310.890 €	%1571	339.954 €	1.529.280 €	%450	696.068 €	274.013 €	%39	721.832 €	16.127 €	%2	- €	- €	%99	%87	- €	- €
ASTIGARRAGA	2.862.964 €	%50	1.431.482 €	2.634	1.087 €	17.511 €	39.000 €	%223	457.300 €	1.499.540 €	%328	669.737 €	191.444 €	%29	147.833 €	383.078 €	%259	456.703 €	383.239 €	%84	%87	197.973 €	- €
HERNANI	3.160.597 €	%50	1.580.299 €	18.747	169 €	19.331 €	726.620 €	%3759	507.359 €	523.986 €	%103	842.390 €	795.932 €	%94	1.151.115 €	24.667 €	%2	1.057.764 €	2.206.782 €	%209	%135	31.629 €	- €
LASARTE-ORIA	2.127.618 €	%75	1.595.714 €	17.195	124 €	19.520 €	- €	%0	335.188 €	260.918 €	%78	686.542 €	17.596 €	%3	1.084.484 €	584.396 €	%54	621.516 €	616.931 €	%99	%70	164.837 €	478.355 €
Ekialdeko ingurabidea	8.061.855 €	%67	5.120.911 €	14.672	549 €	62.641 €	3.248 €	%5	729.636 €	241.276 €	%33	3.184.701 €	667.644 €	%21	1.530.581 €	1.964.619 €	%128	1.299.352 €	2.971.729 €	%229	%73	1.769.902 €	1.438.206 €
ERREENTERIA	2.945.015 €	%75	1.908.761 €	11.455	222 €	23.349 €	3.248 €	%14	404.117 €	24.523 €	%6	842.396 €	282.472 €	%34	850.160 €	1.114.172 €	%131	442.992 €	2.092.489 €	%472	%138	- €	- €
LEZO	1.814.917 €	%75	1.361.188 €	1.935	938 €	16.651 €	- €	%0	283.551 €	133.763 €	%47	583.263 €	13.985 €	%2	12.181 €	182.856 €	%1501	625.322 €	661.942 €	%106	%55	150.121 €	708.870 €
OIARTZUN	3.701.923 €	%50	1.850.962 €	1.282	2.888 €	22.641 €	- €	%0	41.968 €	82.991 €	%198	1.777.042 €	371.187 €	%21	668.240 €	667.591 €	%100	231.038 €	217.297 €	%94	%96	1.619.781 €	729.336 €
Goierrri	11.832.398 €	%65	7.467.665 €	10.370	1.14.																		